

1.- 2021eko arte sorkuntzarako dirulaguntzen oinarriak.

Gaiaren azalpena

Kultura delegatuak 2021. urterako arte sorkuntzarako dirulaguntzak emateko oinarriak proposatu ditu:

Deialdi honen helburua da Hernaniko artistei sorkuntza-prozesuetan laguntzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea.

Sorkuntzarako dirulaguntza deialdia urtero egiten da, bi urtez behin arte plastikoak eta gainerako arte-adierazpenak tartekatuz.

2021eko deialdian, jarduera-proiektu horiek kultura edo sormen sektorearen batean sartuta egon beharko dute: zinema eta ikus-entzunezkoak, argazkia, dantza, literatura, musika, antzerkia... (plastikoak izan ezik).

Dirulaguntza hauen helburua da sortzaileei beraien obra sortu eta gauzatzeko laguntza ekonomikoa ematea.

Proposamena Tokiko Gobernu Batzarrari

Honako hau erabakitzea:

- 2021eko arte sorkuntzarako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.
- Aurrekontuaren zenbatekoa 10.000 eurokoa da. Gastua udalaren aurrekontuko diru partida honen bidez ordainduko da: 1.02.480.01.334.00/2021 Bekak-arte sorkuntza.

Hernani, 2021ko urriaren 08a